

***FRATELLI TUTTI* GUTUN-ENTZIKLIKAREN NORAINOKOA LAN-HARREMANEI ETA GIZARTE-BABESARI BEGIRA**

Frantzisko Aita santuak urriaren 3an eman zuen *Fratelli Tutti* gutun-entziklika, senidetasunari eta gizarte-adiskidetasunari buruzkoa.

Horretarako, oinarri hartu du Giza senidetasunari buruz, 2019ko otsailaren 4an, Abu Dabin, aldarrikatutako Agiria, munduko bakea eta elkarbizitza xede dituen.

Bada, agiri horretan gogorarazten da Jainkoak «gizaki guztiak berdin sortu dituela, eskubideei, eginbeharrei eta duintasunari begira, eta den-denak deitu dituela euren artean anai-arreba gisa bizi daitezen».

Gutun-entziklikaren helburua ere argiro adierazi digu Aita santuak: gaur egun enparauak ezabatu edo bazter uzteko dauden modu desberdinei aurre egiteko gai izatea, hitzetatik haratago joan eta senidetasuna nahiz gizarte-adiskidetasuna xede izanik. Halaber, kontuan hartu da Covid-19 pandemiak gure ustezko ziurtasunak hankaz gora jarri izana.

Ildo horretatik, gai desberdinetan sakondu aurretik berenberegiz aitortu da inork ezin diela aurre egin bizitzako gora-beherei bakardadetik. Gainera, bizi dugun pandemia-egoeran hauxe dio: «denok salbatuko gara ala inor ere ez. Munduko

leku zehatz bateko txirotasuna, gainbehera eta sufrimenduak arian-arian eta zarata handirik atera gabe arazo-iturri bihurtzen dira, mundu osoan eragina izateraino».

Horregatik nabarmendu da entziklikan behar-beharrezkoa dugula eusten eta babesten gaituen komunitatea, komunitate horretan elkarri laguntzeko izan behar dugulako, denok aurrera egiteko aukera izan dezagun.

Aitzitik, gaur egun badira munduan senidetasuna hedatzea oztopatzen dituzten joerak. Hartara, joera horietako batzuk es-tu lotzen zaizkie lan-harremanei eta gizarte-babesari. Hain zu-zen ere, horiei erreparatuko diegu lan honetan.

Halatan, ekonomia eta finantzei helduz, entziklikan esaten da, halabeharrez, «mundura zabaltzea» esapidea sarri darabil-gula gaur egun. Baina zabaltze horren norainokoaz mintza-tzean, Aita santuak kritikatzten du inolako mugarik gabe zabal-tzea beste herrialde batzuetara, botere ekonomikoen erabate-ko askatasuna baliatuz.

Nahiz eta entziklikan beren-beregi ez aipatu, joera horrek berarekin dakar dumping soziala. Bestela esanda, demokrazia-rik gabeko herrialdeetan, non Lanaren Nazioarteko Erakun-dearen (LANEren) oinarrizko hitzarmenak errespetatzen ez di-ren, lan-esku merkea baliatzen da. Orduan, pertsona gauza bihurtzen da, hots, merkatu-gai. Horrek bat egiten du Aita santuak entziklikan nabarmendutako ideia honekin: badira munduak baztertu dituen pertsonak. Badirudi gizadiaren zati bat sakrifikatzen dela, mugarik gabe bizi diren gutxi batzuen mesedetan. Horren ondorioz, pertsonak ez dira aintzakotzat hartzen, errespetatu eta babestu beharreko oinarrizko balio gi-sa, batik bat, txiroak badira edo desgaitasunen bat badute.

Halatan, Aita santuak «behar adinako unibertsalak ez diren giza eskubideez» dihardu, gogor kritikatzeko irabazietan baino oinarrizten ez den eredu ekonomikoa. Eredu horrek pertso-nak esplotatu eta baztertu eze ezik, hil ere egiten ditu.

Baztertze hori gauzatzeko moduak askotarikoak izan daitezke. Horren adibide gisa, entziklikan aipatzen da lan-kostuak murrizteko obsesioa; izan ere, obsesio horrek ez du kon-tuan hartzen eragin ohi dituen ondorio larriak: horrek berarekin dakarren langabeziak txirotasuna areagotzen du.

Zinez, arau ekonomiko batzuk hazkundearentzako eragin-garri dira baina ez pertsona oso-osoa garatzeko. Benaz, aberastasuna gehitu da, baina ekitaterik gabe. Horrela sortu dira Aita santuak «txirotasun berri» deitu dituenak. Hori azaltzeko horrela dio: esan ohi da mundu garaikideak txirotasuna gutxitu duela, baina hori esateko gaur egungo errealtatearekin konparatu ezin daitezkeen garaietako irizpideak baliatzen dira. Konparazio baterako, beste garai batzuetan energia elektrikorik ez izatea ez zen txirotasunaren ageriko. Horregatik, ezinbestekoa da txirotasuna une historiko jakin baten errealtatearen arabera aztertzea.

Modu horretara, ideia horrekin bat etorritz, esan dezakegu garai batean lana izatea bizimodua aurrera atera ahal izateko berme zela. Gaur, ordea, langile txiroen errealtate gordina begi bistan dugu.

Gizatasunaz eta arduraz jokatzek eragingo luke herrialde garatu eta demokratikoetako enpresek zorrotz galdatzea, euren ekoizpen-kateen baitan, demokraziarik gabeko eta gutxi garatutako herrialdeetan kontratatu edo azpikontrataturako enpresei LANeren oinarritzko hitzarmenetan ezarritakoa betetzea. Bada, hitzarmen horiek direla bide, esate baterako, debekatuta dago derrigorreko lana, adingabekoen lana zenbait baldintza kaltegarritan eta enpleguari begira edo lanean bereizkeria oro gauzatzea. Halaber, lan egin ahal izateko gutxieneko adina arautu da, balio bereko lana egiteagatik emakume zein gizonei ordainsari berbera emateko eginbeharra ezarri zaie enpresaburuei, sindikatu-askatasuna eta negoziazio ko-

lektiborako eskubidea aitortu dira, bai eta sindikatuetera bilzteko eskubidea babestea ere.

Esangura horretan, Aita santuak gogorarazten digu, nazioarteko legeria gorabehera, oraindik milioika pertsona askatasunaz gabetuta eta esklabotzaren antzeko baldintzetan bizi direla. Erakunde kriminalek gauzatutako pertsonen salerosketa izango litzateke esklabotza modernoaren adibiderik garbiena. Erakundeok milaka gazte eta ume engainatzen dituzte teknologia informatikoa baliatuta. Horrez gain, mendebaldeko kulturak erakarrita, eta errealtatearekin bat ez datozen igurikimenak tarteko, migratzaile asko geratzen da erakunde mafioso horien mende. Besteak beste, hori berori saihesteko aldarrikatu da entziklikan ez emigratzeko eskubidea, hau da, norberaren herrialdean geratzeko behar diren baldintzak izateko eskubidea.

Baina migrazioak eta migratzaileak errealtate direnez, Aita santuak beren-beregi hartu ditu kontuan entziklikan. Halatan, adierazten du bizirik irauteko gutxienekoa bermatu behar zaiela, bai eta mugitzeko askatasuna eta lan egiteko aukera ere. Orobat, migratzaileak gizarteratzea sustatu behar dela dio.

Egia esan, munduko langile guztien eskubideak bermatzeko ez dago mundu mailako negoziazio kolektiboa aitortu duen araurik. Hala ere, nazioarte mailako sindikatuek eta edozenbat multinazionalak Nazioarteko Esparru Akordioak sinatu ohi dituzte azken urteotan. Hain justu ere, akordio horien helburua da multinazional horiek LANEren oinarritzko hitzarmenak errespetatzea gutxi garatutako herrialdeetan. Gainera, halako akordioetako batzuek esanbidez jaso dute ekoizpen-kateira bildutako enpresa orotan galdatzea hitzarmenok aintzat hartzea.

Labur-zurrean esanda, estatuetatik eta erregio zein nazioarte mailako erakundeetatik kanpo badaude banakako interesen gainetik izate komunitarioa sustatu eta bultzatzeko ekimenak.

Nolanahi ere, egoki litzateke nazioarte mailan ere negoziazio-unitate desberdinak arautzea mundu mailako hitzarmen kolektiboen bidez edonon bermatu ahal izateko gutxieneko batzuk. Orobat, LANEren oinarrizko hitzarmenak betearazten direla bermatzeko nazioarteko auzitegia arautu beharko litzateke.

Baina nola lortu mundu mailako negoziazio kolektibo hori herrialde bakoitzaren baitan sarri askotan enpresaburuak eta sindikatuak ados jartzen ez badira hitzarmen kolektiboak egiteko? Gehiegitan, muturtuta, itsu, ikusten ditugu gure artean ere, batak bestea garaitu nahian. Nola liteke enpresa eta sektore asko urte luzez hitzarmen kolektibo gabe egotea edo errealitatearekin bat ez datozen hitzarmen kolektiboen mende izatea? Jarrera zarratu edo itxietatik ezin da akordioetara heldu. Enpresaburuek eta sindikatuek gizarteari begira izan beharko luketen jarrera adierazteko badugu euskaraz hitz jatorra, alegia, «hartu-eman». Hartu-eman horretatik abiatuta sortu ohi da Aita santuak dioen eztabaida zintzoa, guzion ona bilatzea xede duena.

Aitzitik, Aita santuak dioen moduan, sindikatuek nahiz enpresaburuek euren inguruan harresiak eraikitzen badituzte, eurek sortutako harresien baitan esklabo bihurtuko dira, ortzimugarik gabe, hurkoaren azalean jartzeko gaitasunik gabe.

Funtsezkoa da hurkoaren azalean jartzea. Covid-19 pandemiak agerian utzi du hori. Horren inguruan entziklikan nabarmendu da pandemiaren aurretik ekonomia aurrerapen teknologikoak baliatzen ari zela lanekuaren kostuak murrizteko. Era berean, batzuek sinestarazi nahi ziguten merkatu-askatasunak dena berma zezakeela. Alabaina, pandemiak berriro ere pertsona guztiei begiratu beharra eragin du, ete ez horrenbeste batzuen onurei bakarrik. Hurrean ere, inor ez da bere kabuz bakarrik salbatuko pandemia honetan. «Itxaropenerako bideak» ikusten ditu hor Aita santuak. Itxaropenik ez galtzeko

gonbita ere luzatzen digu, itxaropenak osotasunera garamatzalako, ulerbidez, bihotza asetzero, espiritua gauzarik garrantzitsuenetan jartzera, hala nola, egian, ontasunean, edertasunean, justizian eta maitasunean.

Ardura horrek eraman behar gaitu arreta berezia jartzera komunikabide digitaletan. Aita santuaren esanetan, halakoak oztopo bihur daitezke pertsonen artean benetako hartu-emanak garatzeko. Areago, mendekotasun teknologikoak errealtatetik urrundu gaitzake isolatzeraino. Arrisku horiek lan-munduan igarri-igarrian daude, pandemiaren ondorioz distantziara edo telelanaren bidez lan egiteko aukerak areagotuz doazelako.

Azken buruan, Aita santuaren aburuz, zenbat eta errealtatetik gehiago aldendu orduan eta gehiago aldentuko gara benetako jakituriatik ere. Egin-eginean ere, errealtatetik gertu egoteak eraman behar gaitu hurkoarekin harremanak edo hartu-emanak izatera.

Horren haritik, entziklikan, esanbidez adierazi ez arren, nabari da mailaz mailako gobernantzaren garrantzia. Horrela, herri-kontzientziaz mintzo da Aita santua, esaten duenean ez dagoela sustrairik ez izatea baino alienazio okerragorik. Herrialde bat emankorra eta etorkizuna sortzeko gai izango da baldin eta herritarren artean herri horren partaide izateko sentimendua badago, belaunaldi desberdinen artean eta herria osatzen duten komunitate desberdinen artean zubiak eraikitzen badira. Alabaina, nabarmentzen du herritarrik gabe eta pertsona bakoitza errespetatu gabe ez dagoela herririk. Herria eta pertsonak banaezinak dira. Arean ere, herritarren nortasunak ematen dio zentzua herriari. Nortasun horrek kultura- eta gizarte-loturak gauzatzen omen ditu.

Norberaren esparruan, herrian, gertutasunean, lan egin behar dela dio, baina ikuspegi zabalagoarekin. Poliedroaren irudia dakar hori azaltzeko: «bakoitza bere balioarengatik

errespetatzen da bertan, baina osotasuna zatia baino gehiago da, bai eta zati desberdinen batura baino gehiago ere».

Ekitaterik eza gainditzeko herrialde bakoitzaren aukerak baliatu behar dira, mailaz maila garapen ekonomikoa lortzeko. Modu horretara lor daiteke ekitatea orekatsua izatea herrialde bakoitzaren baitan, bai eta herrialde desberdinen artean ere. Dena den, Aita santuak populismoen arriskuez ohartarazten gaitu. Halakoek bat-batekotasunez erantzuten omen dizkiete gizartearen beharrezanezi, botoak eskuratzeko baino ez. Baina, egiatan, ez dituzte baliabideak sortzen pertsonak berez gara daitezen, esfortzuan eta sormenean oinarrituta. Beste hitz batzuekin esanda, ez da nahikoa presazko zenbait egoeratan ezeren truke laguntzak eskaini edo ematearekin, behin-behineko konponbide moduan. Oso tristetzat jotzen du Aita santuak uste handiko politiken atzean hurkoa kondentatzea jarrera pasiboa izatera. Duintasunerako bidean, aldiz, kalitatezko lana sortzea da gizarte-politikarik onena.

Bestalde, Aita santuak nabarmendu bezala, bada globalizazio eredu bat hala nahita uniformetasunerantz jotzen duena, desberdintasun eta tradizio guztiak ezabatuta eta azaleko batasuna bilatze aldera. Horrek, ordea, berarekin dakar pertsona eta herri bakoitzaren aberastasuna eta berezitasuna suntsitzea. Zernahi gisaz, etorkizuna ez da monokromatikoa, baizik eta koloretsu eta ederra. Halakoa da gizatasuna, askotarikoa eta aberatsa bakoitzak egin ditzakeen ekarpenen aldetik. Bestela esanda, ez gara denok zertan berdinak izan. Modu harmonia-tsua eta baketsuan bizitzen ikasi behar dugu.

Norberaren herritik barrura zein kanpora begiratzen eta jarduten jakin behar dugu. Areriotasunak gainditu behar ditugu eta elkar zaindu behar dugu esparru orotan, elkarrenganako maitasuna oinarri, maitasunak asko baitaki errukiaz eta duintasunaz. Desberdintasunak eta areriotasunak gainditze aldera samaritarraren parabola dakarkigu Aita santuak.

Horrenbestez, gobernuek, enpresaburuek eta sindikatuek lan-harremanetan eta gizarte-babesean badute zeregina. Arean ere, Aita santuaren hitzetatik abiatuta, esparru horretan ere bada makina bat ezkutuko diktadura, norberaren interesek hala eraginda. Zehatzago, «zorigaiztoko hipokrisia» gisa definitu du jokabide hori. Bada, honako hauek dira jokabide horren ondorenak: enparauen izen ona galarazi edota zikintzen da, etengabeko errezeloak sortzen dira, konfiantzarik eza helarazten da eta zalantzak sortzen dira. Talde zarratuak, «gu munduaren aurka» bezala eratzen direnak, egoismoaren formula idealizatuak izan ohi dira, euren burua babestea baino bilatzen ez dutenak. Interes jakin batzuegatik elkarrekin dihardutenek euren taldetik haratago begiratzen ikasi behar dute, bazkideen errealitatetik atera eta hurkoa bilatzeko.

Sindikatuek eta enpresaburuek badute ardurakidetasunez jarduteko esparrua lan-harremanetan, une oro gobernuek egin beharrekoari begira egon gabe. Azken finean, Aita santuaren hitzetan, «zaurituta dauden gizarteak birgaitzeko eta horietan laguntza eskaintzeko ahaleginean norberaren parte-hartze aktiboa behar da». Zeregin horretan, aldiz, sindikatuen eta enpresaburuen elkarrekintza behar da. Hori ulertzeko adibide polita da Aita santuak jartzen diguna samariarraren parabola baliatuz: samariarrak ostalari baten laguntza izan zuen gizon zaurituari laguntzeko. Hortaz, sindikatuek eta enpresaburuek elkar behar dute, nor bere ekarpenak egin eta norberekeriak albo batera utzita guztion ona bilatzeko. Aita santuak gogorazazitakoaren ildotik, ikuspuntu zabala behar dute, pertsona ezin delako garatu eta oso-osoan gauzatu baldin eta zintzotasunez gainontzekoen zerbitzura jartzen ez baba. Horretarako sindikatu zein enpresaburu bidelagun ezin hobeak izan daitezke.

Baina gobernuek ere aktiboak izan behar dute pertsonak eta guztion ona erdigunean jartzeko. Izan ere, pertsona orok eskubidea du duintasunarekin bizi eta oso-osoan garatzeko.

Hori oinarrizko eskubidea da eta ezin uka daiteke. Berau bermaturik ez dagoenean, ez dago etorkizunik senidetasunaren-tzako, ezta gizateriak bizirik irauteko ere.

Horregatik entziklikak dio ekonomia-askatasunak ez duela zentzurik, baldin eta benetako baldintzek eragozten badute askok askatasun hori izatea. Hori gertatzen denean, askatasuna, demokrazia edo senidetasuna bezalako hitzek zentzua gal-tzen dute.

Gizartea onbera bada eta senidetasunean oinarritzen bada, gai da pertsona guztiei bermatzeko modu eragingarri eta egonkorrean laguntza izango dutela euren bizitzan zehar. La-guntza euren oinarrizko beharrianak asetzeko eta gizarteari ahalik eta ekarpen gehien egiteko, bakoitzak bere ahalmenen arabera.

Horrek guztiorrek berarekin dakar solidaritate edo elkarla-guntza Aita santuak ulertzen duen bezala, alegia, borroka be-zala, hala nola, txirotasuna sortzen duten egituren, lanik eza-ren, etxebizitzarik ezaren eta gizarte- eta lan-eskubideak uka-tzearen aurka. Labur-zurrean esanda, gizarte moduan pertsona orori bermatu behar zaizkio duintasunarekin bizitzea eta au-kerak izatea oso-osoan garatu ahal izateko. Halatan, garapena ezin da bideratu gutxi batzuek ondasunak pilatzeko. Batzuek enpresa- edo merkatu-askatasunerako duten eskubidea ezin da lehenetsi herrien eskubideen, txiroen duintasunaren edo ingurumena errespetatzearen aurretik. Izan ere, zerbaiten jabe bihurtzen denak denon mesedetan administratu behar du ja-betzan duen hori.

Azken hori Elizaren Doktrina Sozialaren jatorritik agertzen zaigun ideia da: jabetza pribatua eskubide naturala izanik ere bigarren mailakoa da, hain zuzen ere, ondasun guztien xede unibertsalaren ondorio delako.

Edu berean, entziklikak gogorarazten du enpresaburuen jarduerak helburu zintzoa duela, hots, aberastasuna sortu eta

denontzako mundua hobetzea. Lanpostuak sortzean pertsonak garatzea erdiesten da, bai eta txirotasunetik aldentzea ere. Horixe da, bada, lan-zuzenbidearen oinarria: negozio juridikoari eustea, enpresak iraunaraziz lanpostuak ere iraunarazten direlako. Horrek posible egiten du denontzako lurra, bizilekua eta lana bermatzea. Areago, LANeren Konstituzioarekin bat etorriz, Aita santuak dio hori dela bakerako benetako bidea. Ez da ahaztu behar LANeren Konstituzioak hurrengoa dioela: bake iraunkorra soil-soilik justizia sozialean oinarri daiteke. Halaber, LANeren 1944ko Filadelfiako Adierazpenenak hurrengoa jaso du: «txirotasuna, nonahi dagoela, arazoa da guztiok aurrera egin ahal izateko».

Txiroentzako laguntzarik onena, duintasunerako bidean, lana izatea da. Baina lan hori ez da edonolakoa izan behar, ezpada norberaren gaitasunetik, ekimenetik eta ahalmenetik abiatuta, bizitza duina bermatzeko bestekoa. Leon XIII.a Aita santuak *Rerum Novarum* gutun-entziklikan adierazi bezala, langileen ordainsari edo alokairuak izan behar dute euren beharrianak eta euren familiarenak asetzeko adinakoak. Horregatik, populismoen inguruan arestian esandakoaren ildotik, Aita santuak berriro ere nabarmentzen du txirotasunak diruz laguntzea bigarren mailako konponbidea izan behar dela. Helburu nagusia izan behar da lan egiteko aukerak sortuz bizitza duina ahalbidetzea. Hori dela eta, ekoizpen-mekanismoak aldatu arren, enplegu-politikek ezin dute bazterrean utzi hurrengo xedea: gizarteak bermatzea pertsona guztiek, modu batera edo bestera, aukera izatea euren gaitasunak eta esfortzua eskaintzeko. Arean ere, txirotasunetik okerrena da lana eta lanaren duintasuna ukatzen dituenak. Horregatik, gizarte aurreratuetan, lana gizarte-bizitzan ukatzina den dimentsiora biltzen du Aita santuak. Lanak eguneroko ogia irabazteko balio du baina baita norbera pertsona moduan hazteko ere. Lanaren bidez behar bezalako hartu-emanak sortzen dira, norberaren izatea azaleratzen da,

dohainak partekatzen dira, mundua hobetzeko ardura hartzen da eta herri moduan bizitza lortzen da.

Aita santuak dimentsio ukaezin hori karitateari lotzen dio. Gainera, karitatearen erakundeari esangura zabala aitortu dio. Egin-eginean ere, karitatera biltzen du gizarte hobea lortze aldera pertsona eta erakunde orok enparauekin dituen hartu-emanetan eskain dezakeen guztia: zuzenbidea, teknika, esperientzia, ekarpen profesionalak, zientzia... Horrela ulertuta, karitatea ordena publikoak babestu beharreko errealitatea da eta, ondorenez, legez bermatu behar da lanaren, merkataritza-ko harremanen, justizia sozialaren eta herritartasun politikoa- ren bidez lortu ahal izatea guztiontzako gutxieneko ongizatea.

Hori guztiori arriskuan jar edo oztopa dezakeenaz ere ohartarazten gaitu Aita santuak. Gizakiaren egoismo edo berekoikeria da gaitz hori, kristau tradizioan pertsonaren irritsa. Norberaren eta norberaren taldetxoan zarratzeak, zeken, zi-koitz bihurtzen gaitu, eta gainontzekoekin hartu-emanetan aritu beharrean, gainontzekoengandik hartzea baino ez da itxaroten. Gainera, egoismoak indarkeriazko protestak eragin ditzake nahi dena lortu ezean. Erlatibismoa ere oso arriskutsua dela nabarmentzen digu. Izan ere, egia objektiborik eta printzipio unibertsal eta irmorik ezean, boteretsuenek euren nahierara edo konbenientziaren arabera interpretatuko dituzte balio moralak.

Hain zuzen, joera hori zuzentzeko solidaritatera, elkarreki-ko konfiantzara eta gizarte-elkarrizketara jotzen du Aita santuak. Beraren ustetan, modu horretara bakarrik gauza dezake merkatuak bere eginkizun ekonomikoa. Horrenbestez, premiazkoak dira ekoizpen-mota desberdinak eta enpresaburuen sormena bultzatzen dituzten politikak, lanpostuak gehitzeko eta ez murrizteko. Bestela esanda, politika ez da ekonomiaren morroi izan behar, eta ekonomia ez da teknokraziaren efizientzia hutseko paradigmen morroi izan behar. Ikusmira zaba-

leko politika behar da, erakundeak eraldatu, koordinatu eta jardunbide hobez hornituko dituen, zilegi ez diren presio eta joeretatik aldentuz. Ekonomia biltzen bada guztion ona xede duen politika-, gizarte-, kultura- eta herri-proiektu batera, aukera berriak sor daitezke, gizakiaren sormena eta aurrera egiteko gogoia geldiarazi gabe. Labur esanda, helburua izan behar da ordena sozial eta politiko berria ezartzea, arimatzat karitate soziala duena. Horren ondorioz, Aita santuak dio politikarien ardurarik handiena dela gizarte- eta ekonomia-bazterketa eragingarritasunez konpontzea.

Hori guztiori lortzeko Aita santuk egiten digun deia argia da: politika birgaitzea. Jakina, lan-harremanen esparruan beste horrenbeste esan dezakegu sindikatuei eta enpresaburuei begira. Hortaz, badago non sakondu.

Francisco Javier Arrieta Idiakez

Deustuko Unibertsitateko Lanaren
eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra